

1. LAN ILDOA: HERRI IDENTITATEA



Herri bat eraikitzeko bidean, bertako balioak oinarri sendoa dira. Horregatik, Herri Plan honetako lehenengo lan ildoak Azkoitiarrentzat garrantzitsuak diren ezaugarriek osatzen dute. Herri kohesionatua da Azkoitia, giroa atsegina eta segurua da eta herritarren arteko gertutasunak eta elkarrekiko ezagutzak komunitate izaera ematen dio herriari.

Hizkuntzari dagokionez, euskaraz bizitzeko toki pribilegiatua da Azkoitia, "herri euskalduna", euskararen arnas gune. Hori mantendu eta indartzeko, **euskararen** ezagutza eta erabilera herriko testuinguru guztietan normaltzea da helburua. **Kultur** arloan Azkoitiak potentziala du, bereziki herrian dauden talde eta eragile ugari eta anitzeki esker. Dauden kultur espazioei ere balioa ematen zaie. Azkoitiak herri bizia izaten jarraitu dezan, herriko ondarea, sortzaileak eta kultur egitasmoak lankidetzan hauspotzeko proposamenak jasotzen ditu herri plan honek. Gainera, herrian harrera ona egin nahi zaie beste leku eta testuinguruetatik etorritako pertsonari. Hala, pertsona guztiak barne hartuko dituen Azkoitia helburu, **kultur eta jatorri aniztasuna** balioan jarri nahi da, aniztasunetik bizikidetzarako bidean aurrera eginez. Genero ikuspegitik ere, **parekidetasun** osoa lortzeko, gizon eta emakumeen arteko desberdinkeria ezabatu nahi da eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak bultzatu. Azkenik, elkartegintzak eta talde bizitzak ekarpen handia egiten dute **partaidetza** sustatzen. Horregatik, lan hau babestea eta herritarren eta erakunde publikoen arteko harremana lantzea da helburua, herri parte-hartzailearen garapenera bidean.

2. LAN ILDOA: HERRI IRAUNKOR ETA ARDURATSUA



Iraunkortasuna pertsona guztien eta planetaren bizitza osasuntsua bermatzen duen pentsatzeko, antolatzeko eta ekiteko modua da. Mende honetako erronka nagusietako bat da; bai klima aldaketaren aurrean planetaren etorkizuna babesteko, eta baita etorkizunean bideragarria izango den aukera ekonomikoak garatzeko ere. Erronka global honek, gainera, toki mailako konpromisoak eta neurriak behar ditu.

Horretarako, Herri Plan honetan Azkoitiko **energia** beharrak asetuko dituzten ekoizpen propioa garatzeko egitasmoak martxan jartzea da helburua. **Mugikortasunari** lotuta, deskarbonizazioan aurrera pausoak emateko proposamenak jasotzen dira. Gainera, Azkoitiko espazio eta eraikin publikoak pertsona guztientzako **irigarri** bilakatzea bilatzen da. **Hondakinen kudeaketari** dagokionez, sortutako zabor kopurua murrizteko maila ezberdinetan eragiteko helburua du herri plan honek. Bestalde, **natura** guneak balioan jarri, zaindu eta babestea da erronka. Azkenik, **trantsizio ekonomikoarekin**, Azkoitiko ekonomia arduratsu eta iraunkorra ahalbidetuko duen eraldaketa prozesua burutu nahi da, tokiko baliabideak eta potentziala balioan jarriz eta erabiliz.

LAN ILDOAK	HERRI IDENTITATEA					HERRI IRAUNKOR ETA ARDURATSUA					ONGIZATEA			
	1. EUSKARA	2. KULTURA	3. ANIZTASUNA	4. PAREKIDETASUNA	5. PARTAIDETZA	6. ENERGIA	7. MUGIKORTASUNA	8. IRISGARRITASUNA	9. HONDAKINAK	10. NATURA	11. TRANTSIZIO EKONOMIKOA	12. ZAINTZA	13. ENPLEGUA	14. ETXEBIZITZA
HELBURUAK														
EKINTZAK														
35. Azkoitiko energia berdea														
36. Oletako haize erroten proiektuari erantzun														
37. Udalaren ekoizpen energetikoa														
38. Energia komunitateak														
39. Aholkularitza, informazioa energiaren inguruan. Etxe guztiek nola sortu autokontsumorako energia.														
40. 5G inguruko informazioa														
41. Energia gutxiago kontsumitzeko egitasmoa														
42. Alde zaharreko trafiko mugaketa														
43. Auzmendi bideko trafiko erregulazioa														
44. Erregai garbia														
45. Garraio jasangarriruntz														
46. Bizikleta aparkaleku estaliak														
47. Bir-ziklatu														
48. Bidegorrien argizatzea														
49. Guardia inguruan aparkalekua														
50. Zuazola irisgarri														
51. San Martin irisgarri														
52. Floreaga irisgarri														
53. Eraikin publikoak irisgarri														
54. Plaza berri guztiontzako														
55. Konponketa zehatzak														
56. Irisgarritasun unibertsalaren mahaia														
57. Elgoibarretik sarrera hobetu														
58. Ingurumenaren zaintzarako egiturak														
59. Gazteok arduratsu														
60. Gehiegizko bilgarriekin amaitu														

3. LAN ILDOA: ONGIZATEA



Azkoitiak bizitzeko toki aproposa izaten jarraitu dezan, guztiontzako osasuna, bizi kalitatea eta duintasuna bermatzea ezinbestekoa da, hau da, ongizatea bermatzea.

Horretarako, zenbait helburu proposatzen dira herri plan honetan. Lehenik eta behin, kontutan hartu beharra dago denok ditugula zaintza beharrak. Behar hauek, gainera, garaiaren eta egoeraren arabera aldatuz doaz. Horregatik, Azkoitiko pertsona guztien ongizatea bermatu ahal izateko, erantzunkidetasunetik, **zaintza** eredu propioa landu eta egikaritzea ezinbestekoa da. Bestalde, kalitatezko **enplegua** pertsonen ongizatea bermatzeko gako izanik, eta herri iraunkorra helburu, egungo gizarte erronkei erantzungo dieten kalitatezko aukerak sustatu nahi dira lan munduan. Gainera, guztiok dugun etxebizitza beharra erronka garrantzitsua bilakatu da azken aldian. Guztiontzako Azkoiti baten alde, eta herri bezala erronka honi aurre egiteko, **etxebizitza** eskubide moduan balioan jarri nahi da espekulazio eskematik at eta etxe hutsen aurrean sentsibilizatuz. Amaitzeko, pertsona eta harreman osasuntsuek eratutako herria helburu duten **kirol** eskaintza bideratzea proposatzen da, emakumeengan, neska nerabeengan eta adineko pertsonengan arreta berezia jarritz.

